

## ZAHARRA BARRI



**D**atozen elektiñuak dirala-eta, hemen gabiltz euskal nazionalistak batetik eta estatalistak bestetik, alkarri kristorenak eta bi arpegira botaten. Baiña gure artian politika-munduan dittugun konponduzin eta tirabirak eztira, ez, atzo goizekuak. Esate baterako, orain dala 65-70 bat urte, Bigarren Errepublikan, makiña bat gorabehera gertatu zan Euskal Herrixan eta Oñatiko udaletxian be izan gittuan karramarra batzuk.

Errepublikariaren hasieratik gogor jardun euen jeltzaliak autonomia-estatutua eskuraketako ahalegiñetan. Lehenenguan tradizionalistekin batera eta geruago sozialista eta errepublikano batzuekin. Istillu askoren ondoren, Naparrua alde batera geratu zan eta estatutua onarketako erreferenduma hiru probintzietan bakarrik egin zan 1933ko zemendixaren (azaruaren) Sian: Bizkaixan eta Gipuzkuan maiorixa haundixaz irabazi euen estatutuaren aldekuak; Araban, barriz, gutxiagatik galdu. Baiña Madrillen gobiernu-aldaketia etorri zan berihela eta eskumatarrak nagusittu ziran. Horren ondorixoz, lehen baiño oztopo eta traba ugariago jarri xakon euskaldun gehixenak eukain autonomia-egarrixari eta estatutu-kontuak aparkauta geldittu ziran.

Nazionalistak arazo hari urtenbidia billaketan saiatu ziran, baiña 1934an zihar giro politikua asko okertu zan eta uda alde-ra zihero zittaldu. Euskal Herriko udalak alkartuta hainbat billera eta ekingta egitten hasi ziranian, gobiernu zentralaren erantzuna gogorra izan zan: eragozpena, debekua, multia eta zigorra alde guztietatik. Egoera latz hari aurre egittearren, Euskal Herriko udaletako 1.500 kontzejal baiño gehixagok dimitidu egin euen protesta moduan.

Oñatiko kontzejuan bederatzi ordezkari zittuain nazionalistak: alkatia eta zortzi kontzejal. Danak presentau euen euren dimisiñua 1934ko agorraren (irailaren) 7xan eta zigortuak izan ziren horregatik. Argazkixan agerketan diranak dittuzue. Ezkerretik eskumara:

Jarritta: Iñazio **Zelaia**, Eugenio **Campos**, Jabier **Zelaia** (alkatia), Karlos **Moiua** eta Luis **Arkauz**.

Zutik: Migel **Arrazola**, Lino **Urzelai**, Migel **Zulueta**, Felix **Galfarsoro** eta X.X. (ezezaguna, baiña azkenengo hau etzan kontzejala).

Hamazazpi hillabete egon ziran nazionalistak udaletxetik kanpora eta bixen bittartian udal-gestora bat izendatu eben gobernadoriak. 1936ko otsaillian Frente Popularrak hauteskundiak irabazi zittuanian, amnistiari esker euren karguetara bueltau ziran zigortutako politikuok, baiña ez luzaruan, udan gerra zibilla hasi zan-eta. Orduan fotografixan agiri diran kargudunak gorrixak ikusi bihar izan zittuain, eta ez gorrixakin prezisamente.

J. E.  
Argazkixa Juan Mari Galfarsorok itxi dosku eta argibidiak Juan Mari beraren, Gerardo Uribeetxeberria, Miren Arrazola, Maria Isabel eta Antonio Campos, Joxe Mari Urzelai eta Joxe Otxaloren bittartez eskuratu dittugu.